

# GATAZKAREN KONPONBIDEA



Jean Michel Etchecolonea

## EGOERA

Herrialde honetan ez dugu benetako bake eta normalizazio politiko egoerarik ezagutu, gutxienez, aurten 80 urte bete dituen altxamendu frankistaz geroztik. Oinarrizko eskubide eta askatasunak behin eta berriz modu larrian urratu dira, arrazoi politikoengatik: Exekuzio sumarioak edo arbitrarioak, bortxazko desagertzeak, atxiloketa arbitrarioak, tortura eta tratu txarren aplikazioa, justizia independentea eta inpartziala izateko eskubidearen urraketa, eskubide politikoak kaltetzea (adibidez, adierazpen askatasuna, biltzeko, antolatzeko, politikoki jarduteko askatasuna)... Oinarrizko printzipio demokratikoen aurrean interes politikoak lehenetsi dituen ordena politiko-juridiko baten adierazle mingarriak dira horiek denak.

Hala ere, gatazka horren jatorria, hirugarren belau-naldikoak deitzen diren Herrien Eskubideak ukatu izana da; hau da, independentzia ekonomiko eta politikorako eskubidea, bizimodu duina ahalbidetuz garatu ahal izateko eskubidea, nortasun nazional eta kulturalerako eskubidea, justizia, elkartasun eta eskualdeko eta nazioarteko lankidetzarako eskubidea, eta azkenik, aurrekoen arragoa diren autode-terminaziorako eskubidea eta bakerako eskubidea.

Iraganean urraketen testuinguru bat ezagutu izan dugu, baina gaur egun, gatazka hori behin betiko amaitzeko pausoak emateko beharrezkoak diren baldintza objektibo eta subjektiboak daudela ikusten dugu.

## HELBURUAK

Aieteko Nazioarteko Bake Konferentzia burut eta ETAk 2011ko urrian jarduera armatua uzteko erabakia hartu zuela erantzun ostean, garai hartan ondorio traumatikoak eragin dituen gatazka politikoa konpontzeko sortu ziren aukerak oraindik ere agortu gabe daude. Herrialde honek duela hainbat hamarkadatik ezagutu duen indarkeriaren ondorio suntsitzaileak oraindik ez dira gainditu. Noski, ez gaude 2011. urtea baino lehenagoko egoera berean. ETAren iragarpena indarrean dago eta gainera, eszenatoki berri baten alde hartutako konpromisoa egiaztagarria da, baita urrats gehiago egiteko eta bake eta normalizazio eszenatoki iraunkor bat sortzeko aurrerapausoak emateko borondate eta erabakia ere. Egoera honek, eragin praktikoak eta juridikoak izan behar ditu.

Zoritzarrez, Estatuak funtsezko faktore batzuei, bereziki gatazkaren eragin eta ondorioei, ez diela erantzun esan behar dugu. Ez zaie erantzun garai hartan sortu ziren espektatibei. Madrilek eta Parisek ezarritako blokeoaren eraginez, oraindik ere eskubide eta askatasunak urratzen dira, printzipio humanitarioen kontrako salbuespeneko espetxe-politika izaten jarraitzen dugu, jarduera politiko edo sozial garden eta normalizatuaren aurkako neurri judizial edo administratibo antidemokratikoak ezartzen dira, euskal lurraldean presentzia eta kokaleku militarrek daude... Blokeo horrek beste alderdi bat ere badu: Madril eta Parisko gobernuek modu ulertezinean uko egin diote ETAREN desarme prozesu ordenatu, egiaztagarri eta seguru bati. Ondorioz, armak eta armategiak suntsitzeari eta militanteen itzulerari uko egin diote, nahiz eta ETAK borondate hori argi eta garbi adierazi duen eta nazioarteko adituek egiaztatu duten.

Lamentablemente, debemos constatar que desde el Estado no se ha dado respuesta a factores cruciales, efecto y consecuencia del conflicto. No se ha dado cumplimiento ante las expectativas que se abrían en aquel momento. El bloqueo impuesto por Madrid y por Paris todavía adquiere la forma de vulneraciones de derechos y libertades, mantenimiento de una política penitenciaria de excepción y contraria a principios humanitarios, profundización de medidas judiciales o administrativas antidemocráticas contra la actividad política o social transparente y normalizada, presencia armada y acantonamiento de personal militar en territorio vasco... Bloqueo que tiene otra vertiente, cual es la incomprensible negativa de los gobiernos a enfrentar un proceso ordenado, verificable, seguro, de desarme de ETA con la destrucción de armamento y arsenales y retorno de sus militantes, voluntad inequívocamente expresada por ETA y verificada por expertos internacionales.

## NEURRIAK

**1 Bakeari eta normalizazio politikoari buruzko eztabaida berri bat bultzatzea.** Erakunde publikoen eta eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko auzi horri buruzko eztabaida politikoa tratatuta dago eta nekez har daiteke bake eta normalizaziora irekitako garai berri baten islatzat. Eztabaida eraikitzaile bati ekiteko zailtasun hori ez dator bat euskal gizartearen borondatearekin, gizarteak, zalantzarik gabe, garbi ikusten bait ditu lehentasunak. Beraz, lehenengo, eztabaida zabal eta zintzo bati nola heldu behar zaion definitu beharko da. Inork parte hartzea eragotzi edo zailduko duen baldintzarik gabeko eztabaida hain zuzen ere. Bakea eta normalizazio politikoa bilatzen dituen herri gisa, helburuak zein diren eta helburu horiek lortzeko bitartekoak zein diren zehaztuko duen eztabaida. Ezberdinen arteko akordioetara eta konpromisoetara iristeko borondatea erakutsi behar duen eztabaida. Abiapuntu partekatua izateaz gain, sintesi partekatu berri batera iristeko borondate argia islatuko duen eztabaida. Eztabaida horrek lau atal eta horiek praktikan gauzatzeko politika publiko zehatzak izan behar ditu ardatz. Hauek dira atalak: biktimen aitortza eta erreparazioa, presoan eta erbesteratuen itzulera, ETAREN desarmea eta bere ekintzaileen berrintegrazioa eta euskal lurraldearen desmilitarizazioa. Arlo batean edo bestean sakontzeak, gainerakoetan aurrera egiteko konpromisoa hartzen lagundu dezake eta bultzada bat ere eman dezake

**2 ETAREN desarmea ahalbidetzeko eta azkartzeko programa definitzea.** Egiazki, Kolonbian gertatzen ari denaren moduko deseskalatze eta desarme prozesu eraginkorrek modu horretan jokatzeko akuilu izan beharko lukete. Gatazka konpontzeko nazioarteko analisi eta kontrastea indartuko da. Zehazki, desarme prozesua diogunean, armen eta armategien suntsiketa seguru eta egiaztagarria, eta militanteen itzulera ulertzen dugu. Bide hau inplikaturako eragileen konkurrentzian oinarritutako programa baten bidez bultzatu behar da, «egin eta egiten utzi» premisa kontuan hartuz eta dagokionari dagokiona egiten utziz. Programa horrek nazioarteko erakunde erraztaileen akreditazioa eduki behar du. Gainera, erraztaileek desarme, suntsiketa eta armategien baliogabetze prozedura egokia den egiaztatu behar dute. Baita, programako epeak, baldintzak eta helburuak betetzen diren ere. Horretarako, gobernuek legitimotasun politiko eta instituzional handiena eman behar dio prozesu horri, euskal gizarte bera izango delarik prozesu hori bururatzearen azken onuraduna.



**Euskal lurraldearen erabateko desmilitarizazioari aurre egitea.** Legebiltzarreko gehiengo zabal batek babestutako erabaki batzuk, segurtasun indar edo gorputzen edo indar militarren erretiratzea edo atzera egitea eskatu dute. Indar horiek jada ezin dute objektiboki azaldu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan funtzio erreal bat dutela, beraien funtzioa lurralde okupatu baten irudia betikotzea ez bada. Ez, ustezko arrazoiek, ez gastuak, ez herritarrengan eragiten duten tentsioak eta bidegabekeriak, ez dute beraien presentzia justifikatzen. Gainera, helburua indarkeriazko jarduera euskal ekuazio politikotik ateratzea eta giza eskubideen urraketak berriz ez gertatzea dela kontuan hartuta, euskal lurraldetik, gaur egun Mendebaldeko Europako lurralde militarizatuenetik, atera behar dute; modu ordenatuan eta mailakatuan baina erabat atera behar dute. Beraz, helburu horri ekiteko planteamendu adostu bat egin beharko da, gehiengo parlamentario zabala duena eta atzera egitea dagokion gobernu espainiarreko agintaritza eskudunaren aurrean irmo defendatzeko erabakiarekin.



**Konponbidearen aldeko dinamika sozialak bultzatzea.** Bakea lortzea exigentzia kolektibo bat eta behar politiko bat da, emakume eta gizon guztien zeregina, eta berau ez da indarkeria oren gabezia bakarrik. Horregatik, bakearen kontzeptuari ez zaio mamirik falta, guztiz kontrakoa baizik. Gure ikuspegitik, demokraziarekin lotuta dago, justizia sozialarekin, herritarrei gatazka historikoak amaitutzat ematea ahalbidetuko dien aldaketa prozesu batekin, eskubideei eta askatasunei dagokienez orrialdea pasatzearekin. Ildo horretan, emakumeek eta gizonek partaidetza sozial ezberdina izatea bultzatzen duten baldintzak ere jorratu behar direla ulertzen dugu, gaur egun existitzen ez den eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko.



**Emakumearen protagonismoa bultzatzea.** Gatazka konpontzearekin lotutako erabakitze eta jardute esparru guztietan emakumeen ordezkartza areagotzea beharrezkotzat jotzen dugu. Ohituraz gizonek bete dituzten eta beraiek nagusi izan diren hainbat posiziotan emakumeek lan egitea nahi dugu. Emakumeak konponbidea lortzeko beharrezkoa den prozesu sozialeko protagonista politiko aktibo bihurtu behar ditugu.